

Kalean da Asier Serranoren 'Euri gorriaren azpian' liburua

Mireia Galarza Bastida 2024ko urr. 8a, 14:00

Entzun ▶



Serrano, bere azken liburua eskuetan duela. (Erein)

Donostiako udal liburutegian egindako aurkezpenean eman dituzte liburuaren xehetasunak. Azaldu dutenez, botereak indar berezia du kontakizunean, eta sinbologia asko ageri da bertan.

Gaur eguadian aurkeztu du Asier Serranok bere azken liburua, *Euri gorriaren azpian*. Donostiako udal liburutegian egindako hitzorduan eman ditu bere nobelaren inguruko xehetasunak, eta berarekin izan da Uxue Razkin Ereingo editorea ere.

Serranok adierazi duenez, duela bost urte inguru hasi zen liburua idazten, baina hainbat arrazoi medio, kaxoian eduki du kontakizuna. "Ez nuen bilatzen argitara eramateko momentua, zalantza asko eduki ditut horrekin, baina sentitzen dut urteek aurrera egin ahala hartu duela zentzua istorioak, edo beste era batera esanda, zentzua eman diotela liburuari azkenaldian gertatu ez diren aldaketek. Horregatik ikusi du orain argia".

Emakume baten istorioa kontatzen du liburua, hogeita bost urte atzera herrialdea utzi zuena estatu kolpea hirira heldu zenean. Orduan ezagutu zuen egun idazletzatik erretiratu den emakumeak gizon antzezlea. Orduetik, zazpi urteko diktadura, eta hemezortzi urteko ustezko demokrazia. Orain, emakumea hirira itzuliko da, hiltzorian den gizonaren enkargua betetzera. Serranok ez du enkargu horri buruzko xehetasun gehiago eman, baina bai azaldu du hainbat kontzeptu lantzen saiatu dela kontakizunean. Horietan nabarmentzekoa da boterea. "Boterea hainbat modutan antzeman daiteke diktaduratik kanpo ere, adibidez, ekonomiaren maskarapean", gehitu du.

Sinbologiaz betetako kontakizuna ere badela dio Serranok: eskopetak, soldaduak, fusilak... Eta gehitu du: "Kontakizuna latza da, baina izugarrikerian edertasuna bilatzen ere saiatu naiz".

Narratzailea

Istorioak badu ahots gidari bat, baina zehaztu gabekoa dela dio Serranok. "Kontakizuna pistaz betea dago, baina irakurleak erabakiko du nor izan daitekeen narratzailea". Zentzu horretan, irakurlea interpretatzen saiatu dela ere gehitu du.

Horixe bera nabarmendu du Razkinek ere. "Irakurlearekin jokoa bilatzen du idazleak, eta zentzu horretan nobela zoragarria da. Gainera, Serranoren poetikotasuna ere nabari daiteke azken liburu honetan, nahiz eta eleberri bat izan".

Not found

Goizean aurkeztu dugu Asier Serranoren «Euri gorriaren azpian» nobela. Istorio bortitza, lohitsu, baina dena ederretik duena ✨
Amaieran hauxe kontatu digu egileak lagurrean 📌📌 [pic.twitter.com/V0qNhv95an](https://twitter.com/V0qNhv95an)

— Erein argitaletxea (@ereinargi) October 8, 2024

KULTURA ZARAUTZ

Gukak zu bezalako irakurleen babesa behar du tokiko informazioa euskaraz eta modu profesionalen lantzen jarraitzeko.

Izan Gukakide

Erantzun ▼



Kattalin bitxitegia
Zarautz - Bitxitegiak eta erloju dendak



Esnal ile apaindegia
Zarautz - Ile apaindegiak



Batela Prest
Zarautz - Janari dendak



Andere produktu profesionalak
Zarautz - Ile apaindegiak



Ikusienak



Gizon bat Kilometroetan hainbat adin txikiko grabatzen aritu zela salatu eta elkarretaratzea deitu du Itaiak

KILOMETROAK 2024
Julene Frantzesena
urr 08, 08:04 [AZPEITIA](#)



Kilometroak izpi, bideoan
KILOMETROAK 2024
Guka telebista
urr 07, 19:00 [AZPEITIA](#)



Zumaia Flysch Trail mendi lasterketak eskainitako irudiak
Erredakzioa urr 07 [ZUMAIA](#)



Hartzekodunen lehiaketa saihestuko du Balenciagak epaitegiak bere berregituraketa plana onartu ondoren
Juan Luis Romatet
urr 08, 16:25 [ZUMAIA](#)



Aitzol Apalantzak irabazi du Euskadiko Rallysprint Txapelketa
Iraia Oteiza urr 06 [ERREZIL](#)



Larunbatean egingo dute Domusa Teknik 40 MLKen emakumeen aurreneko entrenamendu saioa
Iraia Oteiza urr 08, 09:15 [AZPEITIA](#)

UROLAKO KOMUNIKAZIO TALDEA KOOP. ELK

Araba kalea, 27
20800 - ZARAUTZ

Telefona: 943 89 00 17 / 943 81 38 41 | Helbide elektronikoa: urolakosta@ukt.eus

Codesyntaxek garatua
Creative Commons License



HONI BURUZ LEGE OHARRA PUBLIZITATEA ARAUAK HARREMANETARAKO RSS



Gertuko informazioa, euskaraz

AIARALDEA	AIKOR	AUIURRI	ALEA	AMEZTI	ANBOTO	ANTXETA IRRATIA	ATARIA	ZUMAIA GUKA	BARREN	BEGITU	BERRIKETAN
DROGETEN ITTURRI	GUKA TELEBISTA	ERRAN	EUSKALERRIA IRRATIA	GEURIA	GOIENA	GOIERRI TELEBISTA	GUAIXE	HIRUKA	ORIO GUKA		
KRONIKA	MAILOPE	AZKOITIA GUKA	NOAUA	OIZMENDI TELEBISTA	PLAENTXIA	TXINTXARRI	URIOLA	AZPEITIA GUKA	28 KANALA		

Matx Gurean Plazanbazan Ttap

Tokikom publikitatea